


UPV/EHUren finantzaketa: eskasa eta txikituz doana

Urkullu lehendakariak irailean kurtsoaren inaugurazioan esan zuenaren kontrara, Eusko Jaurlaritzak UPV/EHU finantzatzeko egiten duen ekarpena ez da nahikoa eta, gainera, termino errealetan – hau da, inflazioa kenduta – behera egiten ari da 2012tik, grafikoan ikusten den bezala.


Eusko Jaurlaritzaren ekarpena UPV/EHUren aurrekontuei*, 2012-24
(milioi euro eta EAEko BPGaren ehunekoak)



* UPV/EHUko sarrera-aurrekontuetako kanpoko baliabideak, transferentzia arruntak eta kapital-transferentziak, irakasleen osagarriak, programa-kontratua eta hainbat urtetarako inbertsio-plana barne.

Iturria: UPV/EHUren aurrekontuekin, Eustaten (BPG) eta INEren (prezioak) datuekin egina.

.../...



Termino nominaletan (euro arruntak), Eusko Jaurlaritzaren ekarpena 2012ko 331 milioi eurotik 2024ko 386 milioira igo da. Baina 2021eko euro konstanteetan, 2012ko 357 milioi eurotik 2023ko 325 milioira jaitsi da. Eta Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Barne Produktu Gordinaren (BPG) ehuneko gisa, 2012ko % 0,50etik 2018tik gaur arteko % 0,40ra igaro da. 2020ko gailurra COVID-19aren krisiaren ondorio da, ekarpenaren igoera txiki bat eta BPGren jaitsiera garrantzitsu bat ekarri zituena.


Hau da, 2008an hasi zen atzeraldi handiaren ondorioz justifikatutako murrizketak, 2013tik aurrera bereziki bortitzak izan zirenak, sendotu egin dira gerora, eta UPV/EHUren finantzaketa publikoa are gehiago urrundu da Espainiako Unibertsitate Sistemaren Lege Organikoak 2030ean lortu nahi duen BPGko % 1-tik.

Gastu arrunta murrizteaz gain, murrizketa horiek azpiegituretan inbertsiorik ez egitea ekarri dute, baita lehendik zeudenak mantentzeko gastuan ere, bai Eusko Jaurlaritzak xede horretarako egindako ekarpenak murrizteagatik, bai UPV/EHUK bere baliabideen zati bat I. kapitulura (langileak) bideratu behar izan duelako. Hala, 2013-2023 aldian, non Eusko Jaurlaritzaren ekarpen guztiak I. kapitulua estaltzeko adina baino ez den, UPV/EHUren aurrekontuaren % 76a langileen gastua estaltzera bideratu da, 2012an aurrekontuaren % 64a zenean. Horri esker, langileen kaleratzeak saihestu ahal izan dira, baina ez da lortu erretiroa hartutakoak behar beste ordezkatzera eta, ondorioz, plantilla zahartu da. Ez da nahikoa izan, ezta ere, IIP eta TEKAZELeko langileen soldaten erosteko ahalmenaren galera eragozteko eta UPV/EHUn dauden enplegu prekarioekin amaitzeko.

Horrela, unibertsitateko langile guztien erosteko ahalmena % 20 murriztu da azken hamar urteetan. Irakasle eta ikertzaileen ordainsari-osagarri gehigarriak 2006an sartu ziren indarrean, kolektibo horren oinarritzko soldata txikiak konpentsatzeko –Estatuan finkatuta daude, eta euskal funtzio publikoan baino nabarmen txikiagoak dira, unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza barne–. Denbora-tarte horretan, haien erosteko ahalmenaren % 30 galdu dute. Izan ere, Eusko Jaurlaritzak kontzeptu horrengatik egindako ekarpena hasieran finkatutako balioen urteko kostuaren % 85 estaltzera mugatu da, inolako igoera gehigarririk gabe, nahiz eta eguneratzeko konpromiso hori 2006ko jatorrizko dekretuan jasota egon.

Gainera, kolektibo horretan ez da ordainsari-aldaketarik gertatu 41/2008 ordainsarien dekretua indarrean jarri zenetik. Dekretu horrek aldi baterako irakasle eta ikertzaileak seirurtekoak (ikerketa-jarduerari buruzkoak) eta bosturtekoak (irakaskuntza-jarduerari buruzkoak) jasotzetik kanpo uzten ditu. Gainera, UPV/EHUKo irakasle eta ikertzaileen ordainsariei buruzko 41/2008 Dekretuak ehuneko komun txiki-txikiak ezartzen ditu arduraldi partziala duten langileen ordainsarietarako, eta beherantz berdintzen ditu arduraldi partziala duten ordezkotako irakasleen soldata (kargu akademikoak dituzten langileen irakaskuntza-murrizketak ordezkatzera) bestelako okupaziorik gabekoak, lanaldi partzialeko irakasle elkartuekin, unibertsitatetik kanpo nahitaez ordaindutako beste lan-jarduera bat egin behar dutenak.

Horrek esan nahi du 450 eta 850 euro bitarteko soldatekin ordaintzen dela, eskola-orduen kopuruaren arabera, ordezkotako irakasleen jarduera partziala, prekaritate onartezin batera kondenatuz. Bai, prekaritate-poltsa hori 2008az geroztik dago, eta orain, 2023ko apirilaz geroztik, prekaritate hori lanaldi osoko irakasle eta ikertzaileen ordezkotako irakasleetara hedatu da (lizentziak, bajak, arduraldi osoko karguak), irakaskuntza-dedikazioko kontratu partzialak soilik dituztenetara, USLOren gutxienez zalantzarik interpretazioaren ondorioz. Gauetik goizera, lanaldi osoko



pertsonen ordezeko irakasleek 2.000 € inguruko soldata duin bat kobratzetik soilik irakaskuntzakoa den 850 €-ko soldata partzial bat kobratzera igaro dira. Kolektibo horren ordezkariak sindikalari bilera bat egiteko aukerarik eman gabe, Eusko Jaurlaritzak egoera hori legitimatu du, eta ez du inolako interesik agertu egoera hori konpontzeko, bere esku eta Unibertsitatearenean dagoenean, aipatutako dekretua aldatuz soldata horiek duintzea, edo araubidez ez bada, bai izatez, aldi baterako langileek bosturtekoak edo seiurtekoak eskatzeko aukera izan dutenean gertatu den bezala. Unibertsitatearen esku dago, halaber, doktoratu aurreko ikertzaileen soldata hobetzea ere, 2022an sinatutako akordioa berehala eta uztaile arte itxaron gabe aplikatuz eta haien erreferentziako nomina irakasle laguntzaileen/laguntzaile doktoeen soldataren % 100eraino igoz.


EHUko Prekarioen Koordinadorak sortutako "Prekarietatearen aurpegiak" dokumentalak ondo baino hobeto jasotzen ditu irakasle eta ikertzaile hauen lan baldintza prekarioen ondorioak. Hemen duzu ikusgai: <https://www.youtube.com/watch?v=07pDhGeGLuA>

TEKAZELen sektorean, erosteko ahalmenaren murrizketa horrek garrantzi berezia hartzen du III-IV taldeetako lan-kontratuko langileen eta E-D eskaletako funtzionarioen artean. Adibidez: 128 menpeko langilek (13. maila) 1.500 € inguruko soldata kobratzen dute, gutxieneko soldatatik oso hurbil, doktoratu aurreko ikertzaileena bezala. UPV/EHUK tresnak ditu langileak prekarietatera kondenatzen dituen egoera hori iraultzeko. Errektore-taldeak hauteskunde-programan jasotako konpromisoa betetzeko garaia da: "AZPko erreferentziatzko plantilla berriaren irizpideak berrikusten hastea, egungo egoerara egokitzeko". Lan-kargak aztertzei aukera ematen duen plangintza-tresna hori geldirik dago 2008tik. Zergatik? Segur aski, TEKAZELEko lanpostuak baloratzen hasteko aurrekonturik ez dagoelako izango da.

Hori dela eta, **STEILASek** UPV/EHUko langile guztientzako soldata-igoera eskatzen du, baita lanpostuen balorazioa ere, TEKAZELen arteko soldata-arrakala zuzentzeko. Eta, zerbitzu publikoen pribatizazioari dagokionez, **STEILASek** garbiketako langileak lanpostuen zerrendan sartzea defendatzen jarraituko du, eta azpikontratazioak zelatatuko ditu. Izan ere, UPV/EHUn 2024ko aurrekontuei bi zuzenketa aurkeztu ditugu. Lehenengoa, hain zuzen ere, garbiketa-zerbitzua berreskuratzeko eskatzera bideratua, urtean ia 15 milioi euroren truke lizitatzen dena. Kopuru horren % 2 gastu orokorretara bideratzen da, % 6 enpresa esleipendunen industria-onurara eta % 21 BEZa ordaintzera. Hau da, UPV/EHUn berezko eta barruko garbiketa-zerbitzu batekin, unibertsitateak urtero 4 milioi euro baino gehiago aurreztuko lituzke, beste helburu batzuetarako erabil ditzakeenak, dela zerbitzu horretako lan-baldintzak hobetzeko, dela Unibertsitateko gainerako langileen lan-baldintzak hobetzeko.

Bigarrena, berriz, komunikazio-sare informatikoen gastua murriztea, hau ere operadore pribatuei lizitatzen baitzaie; izan ere, Eusko Jaurlaritzak, I2Basque sarearen bidez, eta Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioak, RedIRIS Sarearen bidez, zerbitzu horietako asko doan eskaintzen dizkiete unibertsitate- eta ikerketa-zentroei.

Eusko Jaurlaritzak hobetzeko tarte handia du hemen ere. Izan ere, beste esparru batzuetan bezala –aski da gogoratzea onartu berri den Hezkuntza Legea–, EAJK eta PSEk urteak daramatzate unibertsitate publikoari baliabideak kentzen eta programa-kontratuak lehenesten finantzatzeko modu gisa, zerbitzuen pribatizazioa eta azpikontratazioa sustatzen eta pribatuari lotsagabeki laguntzen dioten bitartean. Prozesu hori 2004an Euskal Unibertsitate Sistemarekin abiatu zen. Sistema horrek, alderdi askotan, unibertsitate pribatuak publikoarekin parekatzen



baititu, lurren lagapenarekin eta azpiegituren finantzaketarekin jarraitu du, eta EUNEIZ bezalako irabazi-asmoko txiringito akademikoen sorrera bultzatzen bukatu da.

Eusko Jaurlaritzak, legebiltzarrean dauden alderdi politikoen adostasun handiago edo txikiagoarekin, gure unibertsitate publikoari 2013an hasitako murrizketak betiketuz emandako finantza-tratu txarraren aurrean, **STEILAS** UPV/EHUK azken urteetan aurkeztutako aurrekontuen aurka agertu da, 2024koak barne. Eta unibertsitate publikoaren finantzazioa handitzea eskatzeko, aurrekontu-murrizketak atzera botatzeko, arduraldi partzialeko ordezeko irakasleen eta TEKAZELEko prekarizazioarekin amaitzeko, eta azken hamarkadan galdutako unibertsitateko langile guztien erosteko ahalmena berreskuratzeko, **STEILAS**ek mobilizatzeko eta hurrengo greba-deialdiekin bat egiteko deia egiten du. Irakasle eta ikertzaileak martxoaren 6an, eta UPV/EHUKo langile guztiak martxoaren 12an, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko gainerakoekin batera.

PREKARIZARIORIK EZ! MURRIZKETARIK EZ!
FINANTZIAZIO NAHIKOA ETA BALDINTZATUGABEA!
EROS AHALMENA BERRESKURATU!
UNIBERTSITATE PUBLIKOA LEHENETSI!



6 y 12 DE MARZO HUELGA DE
TODO EL PDI EN LA UPV/EHU **TODO EL PERSONAL UPV/EHU**

MARTXOAK M-6 + MARTXOAK M-12

MARTXOAK **MARTXOAK**

M-6 **M-12**

MARTXOAK **MARTXOAK**

EHUko irakasle eta ikertzaile guztien **EHUko langile guztien**

GREBA

EHUn PREKARIZARIORIK EZ!
 Ordezko irakasleentzako soldata duinak
 Erosahalmena berreskuratu
 Lan-kargak jaitsi
 Finantziazioa handitu
 Erretiro/gaztete plana berreskuratu

LAB **steilas** **ELA**
 EUSKAL SINDIKATUA